

Imanol Berriatua

(1914-12-24 / 1981-9-15)



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Imanol Berriatua
1950eko hamarkadan

1952-03-12
Andima
Ibinagabeitiaren
gutuna
Paristik:

“Garaia da, noski,
gure euskera
oinperatu ta
zapaldua
goi mallatara
yasotzeko”

Paris'tik 1952'gko. Epailak 12
5, rue Quentin Bauchart-Paris VIII

Berriatua'tar Imanol Aba Agurgarriari
F O R U A 'n

Aba eta erlvide agurgarri:

Gaur ain zuzen ere, Donostiatik bialdi didate Aita Omaetxebarrira ren "Esperanto o Vasco" artikulua, zuen "Cantabria Franciscana"tik erauzia. Lendik ere ezagutzen nuen zure lengusa Andoni Arriandiaga'k erakutsita, baiñan gaur arte ez mun neretzat gorde al izan. Aita Villasante'rena ere nai nizuke, bi idazlanak gustiz yakingarriak diralako. Ez al zenidake bialiko? Gai ortaz zerbait idatzi gogo dizut gure aldizkari Euzko-Gogoan, eta idazlan ori burutzeko bear bearreko ditut artikulua bi'ok. Erabat zuen artean darabilzuten estabaida ernegarriaren berri ere emango dut. Garaia da noski gure euskera oinperatu ta zapaldua goi mallatara yasotzeko, eta zuek, prantzizkotarrak batez ere, asko egin dezakezte bide ortan.

Atzo Salvatore Mitxelena Abari idatzi nion eta aldizkari bi igorri ere bai, bata GERNIKA, Buenos Aires'en agertzen dana eta bestea London'go "Bulletin of Selected Books" bere liburu "Ama-Semeak" etaz argitara ditudan kritikatzko birekin. Euzko-Gogoan ere, azkeneko banakoan, lan luze bat idatzi dut liburu ortaz. Goraipamenik aski egiten dizkiot Mitxelena'ri merezi ere ba'dituelako. Gure Euzko-Gogoa betie ere surrera dabil. Azkenengo zenbakia 80 orrialdekoa da, beti bezela euskeraz. Idazlan bikatzez gaitzezka dator.

Noiz duzu Izaro'ko komentu berria irikitzeke ustea? Zai naukazu ni ere ugarte maitagarri artan betiko idutzatzeko. Ua bai benetan gauza atsegifia gure itxasoko olatu aspergaitzen otsetara euskeraz idaztea! Amaikatxo poema eder ta liburu bikain idatzi litezke Izaro'n. Euskeraz gero.... Erderaz ez du merezi, Izaro maitagarria kutsatzea litzakelako.

Zure erantzunaren zai gelditzen naiz. Oso ederki eskuratzen zaizkit ortik bialtzen dizkidaten gauz guziak.

Nere euskal-agurrik beroena yaso ezazu



PP. FRANCISCANOS
FORUA (Vizcaya)

1952-03-22: Imanol Berriatuaren erantzuna
"Ba gagoz emen aski ... euskera errukarria
iaso nahi dugunok ere"

1952'gko Epaillaren 22'an

Ibinagabeitia'tar Andima I.
Paris

Nere adiskide:

Poz aundia artu nun zure gutuna iaso nizunean. Iarraian esan nien Arantzazukoerá, Aita Villasante'ren artikulua lehen bai lehen igor zezaitutela.

Gure artean darabilgun eztabaida ontaz aldizkarietan zerbait idatzi gogo baduzu, ez aipa, otoi, gure "Cantabria Franciscana", agiriko aldizkaria ez da ta. Neu nuzu aren zuzentzaila, eta mesede au benetan eskatzen dizut.

Ai, gure Izaro'ko komentu zaharra! Ba gagoz emen aski, komentu ori edeki gura dugunok. Baita, euskera errukarria iaso nahi dugunok ere. Erein dezagun gogoz, eta bilduko dugu noizbait frutua.

Agur. Zure adiskide

Berriatuar Imanol A.
Berriatuar Imanol A.

P. D. Euzko Gogoa aldizkaria artu gura nuke. Ahal baduzu, bial izki-

1953ko ekaina:

*Anaitasuna-ren
lehen zenbakia:*

*“Lan egin daigun,
gure*

*erriarentzako
beste bizitza barri
bat ekarten.*

*Lan egin, eta
danok alkartuta.*

*Orixe da gure
asmoa. Orixe
gura dau*

ANAITASUNA'K”

Zuzendaria:

Imanol Berriatua



ANAITASUNA

AÑO I — Núm. 1 Suplemento a la hoja
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Junio 1953

GURE ASMOAK

«Deabrua banintz... — esan ei eban bein entzute aundiko gizon batek—, demoniñoa banintz, eta mundu guztia menperatu gura baneu, zer egingo neuke?

Gizonen belarriak erlejiñoaren kontrako biraoz bete, aibat ariñen fedea galdu daien? Edo euren begien aurrean kuadru zantarrak eta loiak imiñi, euren arimak inpernurako bidetik artetz joan daitezcan? Edo Eleizearen eta jaioterriaren eta bakearen kontra berba eragin, matxiñadak edonun sortueratzoteko, eta gizonak Jainko barik, jaioterri barik, lege barik nire menpe gogorean eukiteko?

Ez! Ez neuke olakorik egingo, guzti orrek ez leuskit nire asmoetarako balioko-ta. Zer egingo neuke orduan? **Periodiku gaizto bat argitaratuko neuke.** Olanik, nire asmo ta ames guztiak beingo beingoan lortuko nituke».

Ez dakit egiazkoak ete direan berba oneek. Beñik bein, ondo adierazoten dabe **Periodikuaren indarra ta almena.** Izan-bere, gaurko egunetan **Prentsea da munduaren Errege.** Zer diño periodikuak, eta axe pentsetan dabe gaurko gizonak. Eta pentsau ostean, egin. Orregaitik, zuzen egoan **Pierre L'Ermite**, Frantziako nobelista katoliku ospetsua, zera esan ebanean: «Messieurs, la Presse est la Toute-puissance terrestre». (Gizonak, **Prentsea da munduko Ugazaba Alguztiduna**).

Guzti au egia da. Baiña, demoniñoa balizko gizon areri gauza bat aztu yakon, nire ustez. Inpernuko deabruak, gizonak galtzeko, beste gauza bat-be egingo leuke: gizon zintzoen artean zizaiña —bedar txarra— erein, katolikuak banandu, alkar ondo artu ezcan, bakotxak banazean lan egin daien.

Eta guk katolikuok, zer egingo dogu bitartean? Lo egon? gure areriroak, eurak gura dabena egin daien? Ez orixe. Itzartu gaitezcan, eta lan egin daigun gure kontrarioen arma eurakaz.

Lan aundia daukogu begien aurrean. Geroago ta galduago doa gure gaztedia. Egunean baiño egunean otzago gure kristiñautasuna. Ez gara lengoak. Aztu egin dogu aspaldiko denporea. Olan, nora goaz? Oraiñarte izan gareana, ez dogu izan gura ala?

Lan egin daigun, gure erriarentzako beste bizitza barri bat ekarten. **Lan egin, eta danok alkartuta.**

Orixe da gure asmoa. - Orixe gura dau ANAITASUNA'K

Oraiñarte gipuzkeraz agertu da. Arrezkero, baita bizkaieraz-be. Abegi onagaz artu eizu. Irakurri eizu, lenengotan apurtxu bat kostau arren-be. Zabaldu eizu. Eta Jainkoak lagundu deiskulal!

**1955an,
lehen liburua:**

**Otoitz eta kanta
bilduma
xume bat, mezan
erabiltzeko.**

**Imanol
Berriatuaren
ametsa:
kristautasun
herrizale bat,
euskaraz.**

LAGUNARTEKO MEZEA

I. BERRIATUA

Aita Frantziskotarrak

eratua

1956 (35. zk.) Lehen artikulua Anaitasuna-n.

*“Komunidadea,
soziedadea baiño
askoz geiago da.
Soziedade bat, dirua
irabazteko edo beste
obariren bat eukiteko
egiten da.*

*Komunidade bat
formetako, arimen batasun
sakona bear da.
Gizonak zoriontsu izan gura
badau, komunidadean bizi
bear dau naitanaiez.”*

Imanol Berriatua



ALKARTASUNEZ-KO ESPIRITUA

Bein batan, gerrako prisioneru bat ezagutu nebau. Konzentraziño kampoan egon zanean, familia batan lez bizi izan zan. Prisioneru guztiak banetako komunidadea egiten eben alkarregaz. Gero, gerrea amaítuta, etxera biurtu zanean, prisioneru ori triste gelditu zan. Ez eban bere errilan aurkituten konzentraziño kampoiko alkartasunezko espiritua.

Komunidadea, soziedadea baiño askoz geiago da. Soziedade bat, dirua irabazteko edo beste obariren bat eukiteko egiten da.

Komunidade bat formetako, arimen batasun sakona bear da. Gizonak zoriontsu izan gura badau, komunidadean bizi bear dau naitanaiez. Komunidade batzuk, aundiak dira. Beste batzuk, txikiagoak. Komunidade aundiak, indarrez ta gerreza emoten deitse txikiari.

Komunidade txikiak dira egokienak, gizona zoriontsu egiteko eta bere espiritua berotuteko. Gizona ezin leitake zoriontsu izan, alkartatza bizi ezik.

Komunidade asko dagoz munduan: eta semeen familiako komunidadea, langilleen fabrikako komunidadea, kate-tarren auzoko komunidadea, gazteen algetatokiko komunidadea.

Igaro dan gizaldia, guztiz raxarra izan zan, gizonen artean —batez-bere langilleen artean— alkartasunezko espiritua sortu eragiteko.

Ogeigarren gizaldia, komunidadezaleagoa da. Baiño alan ta guztiz-bere, aundiak dira komunidadezko bizitzearen arerioak.

Gaur egunean asko dira, euren erriko komunidade heroa irxita, urri aundietara lan dilla jouten direanak. Euren bizileku barrian, askok ez dabe aurkituten eurentzako komunidaderik. Erriko masan banan banan jausten dira, eta izenbako beste numeru bat gelago egiten dabe bertan.

Erri aundietan individualismoa ta razionalismoa ugari bizi dira. Gizonaren indarra ta entendimientua bakarrik aintzat artzen dira. Bere bitorza eta here mistika-egardia aiatu be ez dira egiten. Eta ain zuzen, komunidade bat egiteko, elementu bi orreek —biotza ta espirituzko egardia— bear bearrekoak dira. Erri industrialeran aspalditik falta izan da komunidadezko bizitzea. Orregairik gaurko langilleak asko sentietan dabe bitzitza orren bearrizana.

Nok emongo deitse bitzitza ori? Komunismoak? Ez zuridil Komunismoak emon leiken alkartasuna, ez da gizonaren betekoa. Aide baterik, alkartu egiten dihu gizonak, eta bestetik kendu egiten deitse nortasuna.

Jesukristoren dotriñeak bakarrik erakutsiko dauku zelan bizi gelintzekan banetako komunidadean.

Ibieta

1956

**Euskaraz
alfabetatzeko
lehen-lehen
oinarria:**

**Kristau-ikasbidea
euskaraz.**

IMANOL BERRIATU

K R I S T I Ñ A U
K A T E Z I S M O A



Alfonso Irigoien

Koldo Mitxelena

Monsinor Larrañaga

Luis Villasante

Imanol Berriatua

Euskaltzaindiaren III. Biltzarra: Eibar, 1959

Juan San Martin




Euskaltzaindiaren VII. Biltzarra: Arantzazu, 1968





Aditz batuko batzordearen bilera: Arantzazu, 1972


Euskara ikasteko metodo bat: *Euskalduntzen* (1972-1973)



**1976ko irailean
Israelera bidaia eta
hiru hilabete bertan,
hebreera helduei
irakasteko metodoez
ikasten.**

**Euskara herritarren
artean masiboki
zabaltzeko eredu
baten bila ari zen.**

**Bidaia horretan
ezagutu zuen
Mordechay Mishor,
Hebreeraren
Akademiako kidea.**





Israelgo lagunak: Arieħ Xoval, Israelgo Hezkuntza Ministrariaren idazkaria, eta bere emaztea. Imanol Berriatua eta Xabier Kintana.

Anaitasuna (1977-07-01)
(azken artikulua)

**“Oinharrizko euskarak gaurko maioriaren hizkuntza idatzia izan nahi du.
[...]
Nire ustez, momentu hontan, egunkarietan batez ere, oinharrizko euskarari eman beharko genioke lehentasuna.
[...]
Hor daukagu juduen exenplua. Haiek oinharrizko hebraieraren bidea hartu zuten; eta—beraiek aitortzen dutenez—holaxe lortu ahal izan dute, hain epe laburrean, Israel osoa hebraieratzea.”**

oinharrizko euskara

Aspaldion sarritan aipatzen da gure artean oinharrizko euskara. Euskal Akademiak berak ere batzorde bat eratu du, euskara hori aurrera eramateko.

Baina zer da oinharrizko euskara? H gabeiko euskara? Batasun gabeko euskara? Ez, ez da hori.

Zer da, orduan? Oinharrizko euskara —argi eta garbi esateko— euskara batua da, H eta guzti. Baina euskara honek bere karakteristika bereziak dauzka.

Euskara batuan mailak daude. Maila bat goi goian aurkitzen da. Maila hortako euskara ez da erreza. Euskara hori ondo ulertzeko eta menperatzeko, asko ikasi behar da. Euskara hortan idatzitako artikulua eta liburuak, minoria batek bakarrik irakurri ahal ditu. Euskara hori, momentu hontan behinik behin, ez da Herriarentzat.

Oinharrizko euskara, ordea, hondoko mailan aurkitzen da. Izenak berak dioenez, oinharrizko finkatzen da. Oinharri hortatik, batu egin nahi ditu euskalkiak, batez ere hegoaldekoak. Erreza izan gura du, Herriak egunero erabiltzen dituen hitzak eta aditzak eta esaldiak erabiliz. Erreza, baina jatorria eta ederra.

Oinharrizko euskarak gaurko maioriaren hizkuntza idatzia izan nahi du. Orain arte, holako euskara —batua izan ez arren— elizetan eta bertsolariaren saioetan entzuten zen. Entzun egiten zen bakarrik. Orain, batasunaren soinekoaz jantzirik, agerkarietara eta liburuetara pasatu nahi du, edozer gairi buruz errez errez idazteko.

Oinharrizko euskarak irakurtia izan gura du. Ez bakarrik idatzia. Irakurria batez ere. Irakurlea laguntzeko eta haren atentzioa erakartzeko, inprimagintzaren eta pedagogiaren teknika guztiak erabili nahi ditu. Gauza bat da idaztea, eta beste bat irakurtia izatea. Euskaldun gehienek, euskaraz eta erdaraz idatzitako zerbait eskuratzen dutenean, erdaraz datorena bakarrik irakurtzen dute. Oraino ez daude ondo prestatutik, goi mailako euskara batua ulertzeko eta gustura irakurtzeko. Oinharrizko euskarak hutsune hori bete gura du.

Oinharrizko euskarak ez du inor enganiatu nahi. Errealitatea, den bezalaxe agerterazi gura du. Erdaldunek, gure euskarazko agerkariak aztertzen dituztenean, beharbada zera pentsatuko dute: euskaldunek prentsa on bat daukate, 100.000 aleatuko egunkariak argitaratzen dituzte, Nafarroan bertan ere

hainbeste eta hainbeste ale banatzen dira, Euskal Herriari zehar kontactzinak dira euskaraz irakurtzen dutenak.

Asko idazten dela, egia da. Baina ez da egia, asko irakurtzen denik. Herriak oso gutxi irakurtzen du. Zergatik? Beste kausa askoren artean, Herriari dagokion euskara ematen ez zaiolako. Beraren egoera linguistikoa, behar den bezala haintzat hartzen ez delako. Maioriari minorariaren irakurbidea eskaintzen zaiolako. Gure Herriaren bikoiztasun hau kontutan hartzen ez delako. Hauxe da errealitatea, humiltasunez beterik aitortu behar duguna. Oinharrizko euskarak kasu egin gura dio errealitate honi.

Baina nola jokatu behar dugu? Baztertu egingo dugu beste euskara, euskara landua, euskara normala, geure klasikoena, geure gaurko idazle bikainenak. Ez horixe! Arlo hortan sendo lan egin behar dugu, ikastetxeetan, Unibertsitatean, goi mailako aldizkarietan. Etorriko da garaia, euskaldun guztiok euskara hortan trebatuak izango garena. Baina orduarte zer egin?

Nire ustez, momentu hontan, egunkarietan batez ere, oinharrizko euskarari eman beharko genioke lehentasuna. Herriak, Herri ixilak, euskara hori nahi du. Euskaldun berriek —oraingoek eta gerokoek— euskara hori behar dute eta deihadarka eskatzen dute. Geure irakurleen artean inkesta bat egingo bagenu, boturik gehienak —ia denak— euskara horren aldera joango lirateke. Nik neuk, egin dut neure komentuan holako inkesta bat, DELIA egunkaria irakurtzen duten fraideen artean. Irabalarriko fraideok, denok dakigu euskaraz hitz egiten eta irakurtzen, eta batzuk polito ezagutzen dugu geure hizkuntza. Baina, hala eta guztiz ere, euskara irakurgarriago bat ikusi nahi genuke, Bilbon argitaratzen den egunkari eder hontan.

Nire ustez, Euskal Herriko idazleok scrioskiago hartu behar genuke arazo hau. Hor daukagu juduen exenplua. Haiek oinharrizko hebraieraren bidea hartu zuten; eta —beraiek aitortzen dutenez— holaxe lortu ahal izan dute, hain epe laburretan Israel osoa hebraieratzea. Baina juduen arazo hontan, beharbada beste egunen batez hitz egingo dizuzt.

Euskaltzaindiaren eta Iberdueroren arteko hitzarmena (1979-12-07)

Imanol Berriatua



***Hitz egin!* (1978-1987)**

**Euskara ikasteko metodoa
eta liburu bilduma:**


**Euskaltzaindiaren
Oinarrizko Euskararako
Batzordearen emaitza.**

**Batzordearen sortzaile eta
buru Imanol Berriatua
(1977-1981) izan zen, eta
idazkari Juan Jose Zearreta
(1977-1983).**

**Guztira 30 liburu argitaratu
ziren, horietako zortzi
Iberdueroren laguntzarekin.**




Hitz egin! Oinarrizko euskara metodoa (1978-1982)



Bilbo (1980-12-07)

Lehen Korrika



Libururik pertsonalena:

Itsasoa eta ni (1981)

Imanol Berriatua

ITSASOA ETA NI




3. maila

Histori saila

**Bere ideia nagusien
azalpen osoena:**

Ikasle Israelen (1982)




Hil ondoko omenaldia: Bilbo (1981-10-23)
Euskaltzaindiaren eta Iberdueroren ordezkariak



**Xabier Kintanaren
biografia laburra:**

***Imanol Berriatua,*
Bidegileak bilduma
(1990)**



IMANOL BERRIATUA

(1914-1981)

**Omenezko liburua,
hamabi lagunen testuekin:**

Joan Mari Torrealдай
Xabier Kintana
Patxi Uribarren
Jose Ramon Etxebarria
Ricardo Badiola
Frai Alberto
Justo Astui
Norberto Agirre
Juan Jose Zearreta
Kandido Zubizarreta
Joseba Etxeberria
Juan Luis Goikoetxea



**IMANOL BERRIATUAREN BIZITZA
EUSKALDUNTZEAREN EZTANDAN**

1970 - 1980

Mendebalde Kultura Alkartea
Ateka Aztergaiak
IV